



Euskadiko Gazteriaren Kontseilua

**2013rako plangintza
proposamena**



Euskadiko Gazteriaren Kontseilua
www.egk.org



Aurkibidea	1
Testuinguruaren azalpena	2
2007ko EGKren Batzarrean onartutako lan ildoak	3
Plangintzarako oinarri komunak eta zaharkako balioak	4
Bizi baldintza materialak	
1.1 Etxebizitza	5
1.2 Enplegua	8
1.3 Espazio publikoa eta parte hartzea	14
1.4 Elkarlana eta interpelazioa	16
Hezkuntza	
2.1. Hezkuntza ez formala	20
2. 2 Hezkuntza formala	23
2. 3 Jarraia	25
Berdintasuna eta aniztasuna	
3.1 EROTIK 2016 kolaborazioa	28
3.2 Aniztasuna, genero eta gazteria ikuspegia	29
Komunikazioa	
4.1 EGKri buruzko bideo korporatiboa	30
4.2 "Sal del cascarón. Oskola apurtu" bideo lehiaketa	32
4.3 Apadrina a un joven. SOS gazte atzerriratuak	33
4.4 "Campamento en el parlamento" komunikazio kanpaina	35
4.5 Web orrialdea eta sare sozialak	36
4.6 Piztu! Buletin elektronikoa	38
4.7 Berriz Berri	40
4.8 Gazte Borraste irratsaioa	43
4.9 Gazte komunikatzaileen topaketak	45
4.10 Barne komunikazioa	47
4.11 Komunikabideen bitartezko bestelako kanpo komunikazioa	48
4.12 Bestelako lanak	49
Partehartzea	
5.1 EGKren estilo liburua	50
5.2 EGKko kide diren elkarten diagnostika	51
Presidentzia	
6.1 Batzorde Iraunkorra	52
6.2 Arloetako koordinazioa	54
6.3 Batzorde Ekonomikoa	55
6.4 Ohiko Asanblada	57
6.5 Instituzioekiko elkarlana: Jaurlaritza	58
6.6 Instituzioekiko elkarlana: Aldundiak	59
6.7 Instituzioekiko elkarlana: Legebiltzarra	60
6.8 Erakunde garapena	61
6.9 Irudi publikoa	62
Aurrekontua	
7.1 EGK-ko 2013rako aurrekontuaren inguruko azalpenak	63
7.2 EGK-ko 2013rako aurrekontua	65



TESTUINGURUAREN AZALPENA

2013 honi begira, EGKn bizi dugun egoera ekonomikoak zenbait aspektu berregituratzera bultzatu gaitu. Honek gure lanerako gaitasunean eragin zuzena izango du, ez baikara gai orain arteko egitura eusteko. Hala, nahiz eta epe ertain-luzera begira lan ildoak orain arteko moduan edota era zabalagoan lantzeko asmoa dugun, momentu honetan zenbait arlo murriztu eta zenbait lan ildo alde batera uztera behartuta ikusi dugu geure burua.

Alde batetik, lurraldetasuna ez da orain arteko moduan landuko. Honen ordeztan, Partehartze ildoak sortu da, elkarteei zuzendutako lana bideratzeko. Eta gainera, orain arte Berdintasun arlotik lantzen etorri garena (kulturartekotasuna eta generoa) era transbertsalean landuko da, ez lan ildo propio moduan.

Esan bezala, egoera hau behin-behineko moduan dugu planteatua, ekonomikoki gai garen momentuan berriz ere gure indar guztiarekin ekiteko asmoa baitugu alor hauetan. Baina gaur egun EGK dagoen moduan, ezinezkoa zaigu beste era batean planteatzea.



Jarraian azaltzen dira eskematikoki zeintzuk diren lan ildo hauek, 2007ko ekainaren 15eko EGKren Batzarrean onartutakoak.



**Plangintzarako Oinarri Komunak eta Zeharkako Balioak:**

Proiektu guztiEKIN bermatzeko	Proiektu guztiETAN bermatzeko
OINARRI KOMUNAK	ZEHARKAKO BALIOAK
<ul style="list-style-type: none">• Elkartegintza sustatu eta sendotu• Politika ezberdinetan EGKren ikuspegia azaldu<ul style="list-style-type: none">• Koordinazioa• Gizarteratzea• Nazioarteko Ikuspegia	<ul style="list-style-type: none">• Partehartzea (balore eta metodologia gisa)• Ikuspegi hezitzailea• Genero Ikuspegia• Euskararen erabilera eta sustapena<ul style="list-style-type: none">• Aniztasuna• Jasangarritasuna



1. BIZI BALDINTZA MATERIALAK

GAZTERIA ESKUBIDE OSOKO SUBJEKTU BEZALA ULERTU BEHARRAren diskurtsoa indartzea, bai gure proiektuetan, baita prentsa agerpenetan ere.

(Ikusi erdarazko eranskina)

1.1 ETXEBIZITZA

1.1.1 Etxebiz-Hitza plataforma

deskribapena



EtxebizHitza plataforma gaur egun etxebizitza eskubidearen defentsaren inguruan eragile ezberdinak batzen dituen gune bakarretariko da. Horrela izanik, premiazkoa egiten da berau mantentzea eta aurten ere, aurreko urteetan abian jarritako espazio honi jarraipena emango zaio, ekimen ezberdinak sustatuz.

Bere momentuan Foroak bizi izandako norabide aldaketaren ondorioz (Administrazioarekiko harreman ofiziala eten egin zen gobernu aldaketa eman ostean), elkargunea birdefinitu egin zen, helburuak eta estrategiak egoera berriari moldatuz. Guzti honetan EGK-ren papera funtsezkoa izan zen, eta oraingoan eragile bat gehiago bezala parte hartuz gain, zenbait koordinazio funtzio berri ere gazte kontseiluak hartzea aurreikusten da, batzaz beste hilabetean behin ematen diren bilerak Bilboko egoitzan jasoz, bilerak dinamizatuz, aktak jasoz, gai ordena zabalduz, deialdiak irekiz eta gauza teknikoetaz arduratuz.

helburuak

Helburu orokorra

Etxebizitza eskubide subjektiboa defendatu, herri-hiritar denontzako, eta bereziki eskubide hau nabarmenki urratua ikusten dugun gazteontzako.

Helburu zehatzak

- Plataforma bezala jarraipena emateko idazkaritza ardura hartu.
- Eragile sozial eta sindikalekin batera, etxebizitzaren inguruko problematika landu eta kalera begirako ekimenak garatu. Plataforman eragileak gehitu.
- Administrazio/instituzio ezberdinen arduraren inguruan interpelazioa bideratu.
- Aurreko urtean adostutako 'Etxebizitza lege berri batentzako oinarriko neurrien DEKALOGOA' oinarri hartuta 'Etxebizitza politika publikoen beharrezko norabideen' dokumentua adostu eta gizarteratu. Legebiltzarrean ordezkariak daukaten talde aurkeztu



ta baita gobernu taldeari.

- Plataformatik sortzen diren ekimenei jarraipena eman.

ekintzak eta epeak

Ekintzak

- Etxebizitza politika publikoen proposamen adostea eta gizarteratzea.
- Talde politiko eta gobernuko kargu politikoei aurkeztu.
- Plataformatik sortzen diren ekimenei jarraipena eman.
- Etxebizitza politika publikoen joan-etorriak aztertu.

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
█											
			█								
█											
█											

hartzaileak

- Plataformako kide aktiboak: kaleratzerikEZ!, RBU taldea, M15M, ELA, LAB, STEE-EILAS eta EGK.
- Plataformako beste kideek aktiboki parte hartzerik ez badute ere, anitzak dira eta ahal duten moduan egiten dute: ESK, Kepasakonlakasa, Berri Otxoak, EDE Fundazioa, Elkartzen, Ezker Gogoa, Caritas Bizkaia eta Gazteleku daude. Honez gain, dekalogoari atxikimendua eman dioten elkarte asko.
- Bestelako elkarteak: sindikatuak, etxebizitzaren inguruan lanean diharduten taldeak, gizarte bazterketaren kontrako elkarteak, gazte elkarteak, Unibertsitatea, etab.
- Erakunde politikoak, Jaurlaritzako Etxebizitza eta Garraio Sailburuordetza eta Legebiltzarra.
- Jendartea orokorrean eta gazteak bereziki.

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- EGK-ren proaktibitatea, hartutako ardurak.
- Plataformaren funtzionamendua, bilera kantitatea eta kalitatea. Beste kideen proaktibitatea.
- Plataformaren parte hartzaileen kopurua.
- Lortutako atxikimenduak.
- Proposamen eta diskurtsoen eragina (jendarte eta komunikabidetan).
- Administrazioarekin izandako bilerak.



1.1.2 Gazteak eta Etxebizitza “desahuciadxs antes de emanciparnos”

EtxebizHitza plataforman kolektibo ezberdinekin egiten da lan orokorraz gain, gazteria eta etxebizitzaren inguruko proiektu propio bat garatzea beharrezkoa da hurrengoagatik:

- gaur egungo egoerak bultzatuta, jabetzako etxebizitzaren desjabetzeek indar handia hartzen ari direlako gizartean, eta ez, berriz, alokairukoak edo poliziaren interbentziorik ez duten beste etxebizitza eskubide urraketek (gazteoi gehiago eragiten digutenak).
- gazteon etxebizitza eta emantzipazio politikak ia existitzen ez direlako, ez behintzat “zuzkidura bizitoki”etaz harago (ikusirik aurreko urtean hauei egindako kritika)
- EGKk gazteria eta etxebizitzaren inguruan egindako azken argitalpena edo proiektua 2010ekoa delako, eta ordutik egoera izugarri aldatu delako.

deskribapena

EtxebizHitza

helburuak

Helburu orokorra

Etxebizitza eskubide.

Helburu zehatzak

- Plataforma bezala jarraipena emateko idazkaritza ardura hartu.
- Eragile sozial eta

ekintzak eta epeak

Ekintzak

- Etxebizitza politika publikoen proposamen adostea eta gizarteratzea.
- Talde politiko eta gobernuko kargu politikoei aurkeztu.
- Plataformatik sortzen diren ekimenei jarraipena eman.
- Etxebizitza politika publikoen joan-etorriak aztertu.

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
█											
			█								
█											
█											

hartzaileak

- Plataformako kide akt

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- EGK-ren proaktibitatea, har



1.2 ENPLEGUA

1.2.1 Gazteen enplegurako politika publikoen hausnarketa (lan taldea)

deskribapena

Luze da EGKtik gazteriaren prekaritatea salatzen dela, ez bakarrik azken urteotako egoera ekonomikoren ondorioz, baizik eta are lehenagotik ere pairatzen ditugun baldintzengatik ere. Gaur egungo egoerak bereziki gogor jo gaitu gazteoi eta bideratzen ari diren erreformek ez dute gure prekaritatea denboran eta sakontasunean indartuko baino. Sindikatuek eta beste eragile batzuek emandako erantzunak ez dira gutxi izan, baina beharrezkoa da geuk gazteok, gazte perspektiba batetik, guzti hau hausnartu eta erantzun bat emateko lan talde bat sortzea.

Pasa den urtean Gazteria eta Enplegua lan taldea osatzeko esfortzua egin zen, erantzun eskasa izan bazuen ere. Aurtengo lehen hilabetetan, berriz, Aldundi ezberdinetatik haien gazteen enplegurako politika publikoak hausnartu eta ekarpenak egiteko proposamenak heldu dira. Honen harira EGKko elkarteek erantzuna ona izan da eta lan egiten jarraituko da, egitasmo hau bultzatzen duen talde motorearen laguntzaz.

helburuak

Helburu orokorra

Gazteriaren perspektiba batetik gazteriarekin loturiko enplegu eta lan munduan bideratzen ari diren politika publikoak hausnartu, administrazioari helarazi eta, eskubide eta prekarizazioaren aurrean gure egoera aztertu eta gazteok eskubide osoko subjektu bezala aintzakotzat hartzea defendatu.

Helburu zehatzak

- EGK barruko enplegu lan taldea bultzatu eta gazte elkarte-eragile gehiagori zabaldu.
- Gazteria eta enpleguaren inguruko politiken inguruan hausnarketa eta eztabaida gune bat sortu, gazteen prekarizazioan erortzen ez diren alternatibak sortzeko bideak irekiz (Aldundien Gazteen Enplegu planak...)
- Eragile ezberdinen arteko harremana sendotu.
- EGKren baitan material propioa garatu.
- Administrazio eta beste erakundeekin zubi lana egin.

**ekintzak eta epeak****Ekintzak**

- Bizkaiko Aldundiko Gazteen Enplegu Plana hausnartu eta Aldundiarekin harremanak.
- Gipuzkoako Batzar Nagusietako "Ekonomi garapena eta enplegua" talde txostengilea.
- Plataformatik sortzen diren ekimenei jarraipena eman.
- Apirilak 28-ko ekimena bultzatu
- Lan istripuen protokoloaren oinarriak ezarri.

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

hartzaileak

- EGK barruko enplegu lan taldea (CCOO, UGT, EHNE, Gazte Komunistak eta JOC) eta EGK barneko beste elkarteak.
- Sindikatuak eta Enplegu arloko jendarte eta gazte taldeak.
- Administrazio/instituzio ezberdinen arduraren inguruan interpelazioa bideratu.
- Jendartea oro har eta gazteak bereziki.

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Lan taldearen bideratzea eta bertan elkarteen parte hartzea.
- Proposatutako ekintzen bideraketa.
- Proaktibitatea eta bideratutako eztabaida eta hausnarketaren sakontasuna.



1.2.2 Prekarietatearen salaketa publikoa (lan taldea)

deskribapena

Urtero bezala, gazte prekarietatearen inguruko posizionamendu publikoa egiteko asmoa dago aurten ere, bi nazioarteko egunen testuinguruan.

Lan Osasunaren Nazioarteko eguna [apirilak 28]: orain arte egin izan dena, gazteon lan baldintzak salatu eta berauek osasunean duten eragina azpimarratu, minimoen taula bat argitaratuz. Komunikazio teknikariarekin batera egingo da, EGKren hedabideen bitartez.

Enplegu lan taldearekin ere bideratzen saiatuko da, eta ostean, EGKko elkarteek eta kanpo eragileek nahi izanez gero, ekimen publiko bat egin daiteke.

helburuak

Helburu orokorra





Gazteon lan baldintzen eta hauen ondorioen salaketa publikoa egin, enplegu sistemaren arduradun direnen ardura interpelatuz.

Helburu zehatzak





- EGK-ren diskurtsoa - posizionamendua azaldu lan istripu eta prekarizazioaren inguruan.
- Instituzioen ardura interpelatu.
- Gainontzeko eragileekin dekalogoaren minimoak jendarteratu eta eragile gehiago txertatu.

ekintzak eta epeak (kronograma)

Ekintzak

-  Dokumentuaren erredakzioa eta garapena.
-  Dokumentua elkarteekin landu eta babesa bilatu.
-  EGK-ren hedabide propioen bitartez ezagutarazi eta komunikabideetara zabaltu
-  Ekimen publikorik egin?

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
											
											
											

hartzaileak

- EGK barruko elkarteak eta berezi bizi-baldintzen inguruan lanean dihardutenak.
- Sindikatuak, gizarte eragileak eta gazte eragileak.
- Gizartea oro har eta gazteok bereziki.



jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Dokumentuak jasotako proposamenen egokitasuna.
- Dokumentua sinatutako elkarte kopurua.
- Medioetan izandako oihartzuna.

1.2.3 “Apadrina un joven / S.O.S. Gazte Atzerriratuak”

Azken urteotan gazteriaren langabeziaren soluzioen inguruko diskurtsoak bi ildo nagusi hartu ditu, eta bi ildo hauek bideratzen ari diren politika publikoetan indar handia hartzen ari dira: EKINTZAILETASUNA eta ATZERRIRA LAN BILA JOATEA.

Hala ere, gaur egungo eredu sozioekonomikoaren barruan, bi soluzio hauek ondorio latzak izan ditzakete gazteentzat, bai behintzat politika publiko bezala bultzatzen direnean (aukera pertsonala denean, aitzitik, guztiz errespetagarria), ez baitira eskubideen urraketan erreparatzen duten politika publikorik, baizik eta soluzio hauen bultzatzean oinarritutakoak.

Beharrezkoa da, beraz, hauen inguruko hausnarketa bat egitea eta beraien beste aurpegia gizarteratzea.

deskribapena

Proiektu hau Komunikazio teknikariarekin elkarlanean egingo da (ikusi proiektua komunikazio plangintzan).

1.2.3 “Emperdedores: la cara oculta del emprendizaje”

Azken urteotan gazteriaren langabeziaren soluzioen inguruko diskurtsoak bi ildo nagusi hartu ditu, eta bi ildo hauek bideratzen ari diren politika publikoetan indar handia hartzen ari dira: EKINTZAILETASUNA eta ATZERRIRA LAN BILA JOATEA.

Hala ere, gaur egungo eredu sozioekonomikoaren barruan, bi soluzio hauek ondorio latzak izan ditzakete gazteentzat, bai behintzat politika publiko bezala bultzatzen direnean (aukera pertsonala denean, aitzitik, guztiz errespetagarria), ez baitira eskubideen urraketan erreparatzen duten politika publikorik, baizik eta soluzio hauen bultzatzean oinarritutakoak.

Beharrezkoa da, beraz, hauen inguruko hausnarketa bat egitea eta beraien beste aurpegia gizarteratzea.

deskribapena

Ekintzailetasuna politika publiko bezala lantzearen ondorioen inguruko hausnarketa eta gizarteratze kanpaina: “autoprekarizazio” edo “autoexplotazioa”-ren salaketa. Proiektu hau SOS Gazte Atzerriratuak proiektuarekin bat dator eta honen ostean egingo da, bestea bezala, komunikazio arloarekin elkarlanean.





**helburuak****Helburu orokorra**

Ekintzailetasuna eta autoenpleguaren aitzakipean aurrera eramandako politika publikoek gazterian sortarazten dituzten eskubideen urraketa eta beste ondorioen salaketa egitea.










Helburu zehatzak

- Ekintzailetasunaren inguruko politika publikoen argiak eta itzalak hausnartu.
- Instituzioen ardura interpelatu.
- Gazteon ahotsa bideratu gai honetan
- Salaketa kanpaina bideratu

ekintzak eta epeak**Ekintzak**

-  Kanpaina diseinatu Komunikazio teknikariarekin batera
-  Gazteen eta gazte elkarten ahotsa batu.
-  Kanpaina bideratu
-  Ondorioak gizarteratu eta politikariei aldarrikapenak helarazi.

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
											
											
											

hartzaileak

- EGK barruko elkarteak eta berezi bizi-baldintzen inguruan lanean dihardutenak.
- Sindikatuak, gizarte eragileak eta gazte eragileak.
- Gizartea oro har eta gazteok bereziki.
- Kargu politikoak eta administrazioa.

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Bideratutak kanpainak jasotako erantzuna, gazteen eta komunikabideen artean.
- Garatutako diskurtsoaren kalitate eta sakontasuna.
- Politikari eta administrazioari interpelazioak emandako fruituak



1.2.2 Protokoloa: lan istripuen ondoriozko gazte heriotzak

deskribapena

Lan istripu baten ondorioz gazte bat hiltzen den bakoitzean, heriotza bera eta gazteon lan-heriotzen errudun den prekarizazioa salatzeko adierazpen publikoa egitean datza protokolo hau. Batzorde iraunkor eta komunikazio teknikariarekin batera garatzen etorri da proiektua azken urteotan, baina gaur egungo egoerak testuaren zenbait aldaketa eta protokoloaren eguneratzea eskatzen du, ahal izatekotan lan talde orokor baten barruan garatuta (sortu nahi den enplegu lan taldea).

Horrela ba, protokoloa eguneratzen den bitartean orain arteko moduan, EGK-k dituen hedabide propioen bidez eta bestelako hedabideen bidez, EAEn gazte bat lan istripu baten ondorioz hilda suertatzen den bakoitzean salaketa publikoa egingo da, prentsa ohar baten bitartez.

Aurreko urtean proposatu zen protokoloaren berritzea ere, baina denbora faltagatik egikaritzea ezinezkoa izan zelarik, aurten berreskuratzen da ekimena. Gainera, lan munduarekin proiektu ezberdinak proposatzen direnez, hauek berritu nahi den diskurtsoa mamitzen lagunduko dute.

Protokoloaren onarpena batzarretik pasa beharko da.

helburuak

Helburu orokorra




Gazte langileen lan istripuen ondorioko heriotzen errudun diren prekarizazio eta beste lan baldintzak salatu.

Helburu zehatzak





































- EGK-k dituen hedabide propioen bidez EAEn gazte bat lan istripu baten kausa hilda suertatzen den bakoitzean salaketa publikoa egin.
- Protokoloa eguneratu, aberastu eta idatziz jaso.

ekintzak eta epeak

Ekintzak

-  Lan istripuen ondorioko gazte heriotzen salaketa
-  Protokoloaren eguneratzea bideratu.
-  Protokoloa idatziz jaso.

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
											
											
											

**hartzaileak**

- EGK barneko taldeak.
- Gizartea orokorrean, eta gazteak bereziki.

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Ekintzaren jarraipena.
- Inpaktu komunikatiboa.

Berritutako protokoloaren diskurtsoaren kalitatea eta aberastasuna.

1.3 ESPAZIO PUBLIKOA ETA PARTE HARTZEA**1.3.1 Hirigintza Barneratzailea****deskribapena**

Aurreko urteetan, bereziki 2012.urtean zehar, espazio publikoaren inguruan ekimen anitz bultzatu dira eta, besteak beste, Ahotik at! 10. alea argitaratu zen “Hiriak egin eta desberdintasunak desegin” izenpean. Horrela ba, lan ildo hau indar gutxiz bideratuko bada ere, diskurtsoa mantentzea garrantzitsua da, gehien bat urtearen lehen partean, aurreko urteko erritmoari jarraipena emateko.

helburuak**helburu orokorra**

Espazio Publikoaren inguruan EGKren diskurtsoa mantendu eta bultzatutako sareari laguntza eskaini.

Helburu zehatzak

- Pentsaren eskaerei erantzun eta diskurtsoa plazaratu.
- 27UHSareari laguntza teknikoa eskaini.

ekintzak eta epeak (kronograma)**EKINTZAK**

- Pentsaren eskaerei erantzun eta diskurtsoa plazaratu.
- Sareari laguntza teknikoa eskaini.

KRONOGRAMA

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
■	■	■	■								
■	■	■	■								



hartzaileak

- Gure hiri, herriak eta berauen espazio publikoak biziberritzen dituzten elkarte eta kolektiboak.
- Hiri eta herrien plangintzan eskumena daukaten administrazioak.
- Gizartea orokorrean, eta gazteak bereziki.

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Elkarte eta kolektiboekin harremanak

1.3.3 Gaztetxeen uztarazteen protokoloa

deskribapena

Hiri eta herrietako espazio publiko eta erabilera publikoko zerbitzu ezberdinek ez diete beti gazteon bizimodu, nahi eta beharrei erantzun egoki bat ematen, ez espazioengatik ezta antolamendu moduagatik ere, eta honen aurrean, hamarkadak dira gazte mugimenduek autogestioan, parte-hartzean, erabaki eta funtzionamendu autonomian oinarriturik eta dirulaguntzen eta epeen menpekotasunik at antolatzen direla.

Mugimendu hauek ekintza eta proiektu ezberdinak aurrera eramateko beharrezkoa duten espazioa lortzeko hiri eta herrietako eraikin hilak berpiztuz lortu dituzte [berez, bertan behera utziak izanagatik haien funtzio soziala betetzeari utzi diotenak], gure hiri, herri eta auzoei kolore berriak emanez.

Hala ere, hildako eraikinak okupatu eta eredu berriekin berpiztea baino, legeriak jabetza pribatua ezeren gainera defendatzen du, eta tamalez, gaztetxeen uztarazteak aurrera jarraitzen dute.

2012an, 31. batzar orokorrean onarturiko protokolo berrituari jarraipena emango zaio. Hori, arlo honetatik eramango da Parte-Hartze arloa aktibatzen den bitartean, gero bere esku geratuz.

helburuak

helburu orokorra

Hiri, herri eta auzoetako eraikin hutsak biziberritzen dituzten gazteon autogestioan oinarritutako proiektuek gizartea eraikitzeko duten garrantzia azpimarratu eta berauetan parte hartzeari babesa eman.

Helburu zehatzak

- Gaztete bat uztarazten den bakoitzean hedabideetan berau salatu eta EGKren posizionamendua agertu.
- Proiektu hauei babesa aurkeztu.



Ekintzak eta epeak (kronograma)

Ekintzak

- Gaztetxeen uztarazteen salaketa eta haiekiko babesa aurkeztea.

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

hartzaileak

- EGK barruko taldeak (batez ere lan eremuan aritzen direnak).
- Gazte talde eta eragileak.
- Erakundeak eta administrazioa.
- Gizartea oro har eta gazteria bereziki.

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Ekintzaren jarraipena.
- Inpaktu komunikatiboa.
- Berritutako protokoloaren diskurtsoaren kalitatea eta aberastasuna.

1.4 ELKARLANA ETA INTERPELAZIOA

1.4.1 Gizarte eragile eta ekimenekin

deskribapena

Jendarte eragileekiko elkarlana da EGK-k burutzen duen beste lan garrantzitsuenetariko bat. Arloarekin zerikusia duten gaiekiko (etxebizitza, enplegua, espazio publikoa, oinarrizko errenta,...) plataforma eta kolektiboen arteko dinamiketan parte hartu eta EGK-ren diskurtsoa azalerratu, ideiak eta ekimenak elkartrukatzea hain zuzen ere.

helburuak

- Bileretan parte hartu eta EGK-ren diskurtsoa eta gazte ikuspegia bermatu.
- Beste eragileekin harremana ahalbidetu eta egonkortu.

ekintzak eta epeak (kronograma)

Ekintza hau urtean osoan zehar gauzatzen da.

hartzaileak

- EGK kanpoko gazte eragileak.
- Gai sozialak jorratzen dituzten jendarte eragileak.
- Jendartea oro har eta gazteria konkretuki.



jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- EGKren eta gazte errealitatearen diskurtsoaren presentzia.
- Bilera kopuru eta kalitatea.
- Eragileekiko harremanaren sendotzea eta egonkortzea.

1.4.2 Beste gazteria kontseilu, erakunde eta administrazioarekin

deskribapena

Arloarekin zerikusia duten gaien inguruan (etxebizitza, enplegua, espazio publikoa, oinarrizko errenta,...) instituzioekiko eta beste lurraldeetako gazte kontseiluekin harremana izan eta mantentzea.

helburuak

- GAZTEEK-IN prozesu parte hartzailean bizibalintzak material arloko lan ildoak txertatu
- Instituzio edo administrazioarekiko gai konkretuetan harremana izan eta interlokuzioa ahalbidetu.
- CJE rekiko harremana izan, informazioa partekatu.
- Beste kontseiluekin harreman puntualak mantendu.

ekintzak eta epeak (kronograma)

Ekintza hau urtean osoan zehar gauzatzen da.

hartzaileak

- EAEko administrazio publikoa.
- CJE.
- Bestelako Gazte Kontseiluak.
- EGKko elkarteak
- Beste gazte eragileak
- Jendartea oro har eta gazteria konkretuki.

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- EGKren diskurtsoren presentzia.
- Bilera kopuru eta kalitatea.
- Interlokuzioak emandako fruituak.



1.4.3 Barne koordinazioa

deskribapena

EGK barruko egitura eta funtzionamendua kontutan hartuta, barne koordinazioa mantentzea ezinbesteko lana da. Bai teknikarion artean, bai iraunkor eta batzarrarekin ere.

helburuak

- Bulegoko gestioak burutu.
- Beste teknikariek elkarlana bideratu, gai ezberdinen zeharkakotasuna bermatuz.
- Jarraipen lana burutu hilabeteka.
- Memoria eta plangintzak zehaztu urtero.

ekintzak eta epeak (kronograma)

Ekintza hau urte osoan zehar gauzatzen da.

hartzaileak

- EGK barneko Batzorde teknikoa.
- EGK barneko elkarteak.

1.4.4 Posizionamendu Publikoak

deskribapena

Arloarekin zerikusia duten gaiekiko (etxebizitza, enplegua, espazio publikoa, oinarritzko errenta,...) gertaera edo/eta testuinguruaren aurrean EGKren diskurtso, balorazio eta iritzia azaleratzean oinarritzen da.

helburuak

- EGKren iritzi eta diskurtsoa azalerratu gai ezberdinen inguruan.
- Momentuko gertaera eta errealitateari aurre hartu EGKren posizionamendua azalerratuz.

ekintzak eta epeak (kronograma)

Ekintza hau urte osoan zehar gauzatzen da.



hartzaileak

- EGK barneko elkarteak.
- Jendarte oro har eta gazteria konkretuki.

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- EGKren diskurtsoren presentzia.
- Jendarte eragileetan izandako inpaktua.
- Jendartean oro har eta gazterian lortutako oihartzuna.

1.4.5 Finantziazioa bilatu: Youth in Action

deskribapena

EGKren lan arloak indartuko dituen kanpoko dirulaguntzak bilatu eta eskaerak egin.

helburuak

- Youth In Action dirulaguntzarako eskaera bideratu.
- Eskatuko den proiektua diseinatu Hezkuntza teknikariarekin batera
- Gazteekin proiektua justifikatu

ekintzak eta epeak (kronograma)

Urtarrila eta Otsailean zehar.

hartzaileak

- EGK barneko Batzorde teknikoa.
- EGK barneko elkarteak.



2. HEZKUNTZA

2.1 HEZKUNTZA EZ FORMALA

2.1.1 Astialdi Foroa

deskribapena

Astialdi Foroa EAeko elkarte eta eragile ezberdinen elkarlanerako gunea da. Lantalde honek, Euskadiko Astialdiaren garapena bultzatzea du helburu, elkarren arteko koordinazio – bitartekaritza, ekimenen oinarritzko aholkularitza, elkarren arteko hausnarketa, formazioa eta sentsibilizazioa abiapuntutzat hartuta. Astialdiari lotutako elkartegintza indartu nahi da, baita balioetan heziketa eta astialdiaren bitarteko gizarte eraldaketa bermatutako ekimenak bereziki sustatu ere.

Lana bideratzeko, 3 Lurraldeetan banatzen da, bakoitzean foro bana dagoelarik. Denei eragiten dieten arloetarako ordea, guztiak biltzen dira.




helburuak

Orokorrak:















- 3 Astialdi Foroetako hausnarketak eta lanak koordinatzea
- Astialdi Foroko lan taldea sendotzea
- Esperientziak trukitzea
- Erakunde publikoekin bitartekaritza egin
- Astialdiaren bisibilizazioa eta aldarrikapena

ekintzak eta epeak

Ekintzak

-  3 lurraldeetako bilerak.
-  Udako ekintzen eskuorria
-  “Campamento en el Parlamento” 1. Fasea*

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
											
											
											

**hartzaileak**

- Astialdi Foroko elkarteak
- Instituzioak
- Gizartea

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Egin diren bilera kopurua
- Bileren guztietan Astialdi Foroko erakundearen %60ko parte hartzea
- Bileretako aktak
- Udako ekintzen eskuorriaren argitalpena eta bidalitako ale kopurua
- Hedabideen erantzuna

2.1.2 Haurrak eta Nerabeak zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektoriala**deskribapena**

Haurren arloan diharduten gizarte eragile, gizarte erakunde eta Administrazio Publikoak biltzen dituen hausnarketa eta koordinaziorako batzordea da, non haurrak eta nerabeak zaintzeari dagokionez, konpromisoa hartu duten alderdi guztien arteko lan eraginkorra egin nahi den.

Batzorde honetan, Astialdi Foroaren izenean parte hartzen da eta forora informazioa helarazteaz gain, erabakiak bertan adosten dira.





helburuak

- Modu bateratu eta globalean Astialdi Hezitzailearen esanahia plazaratu.
- Haur eta nerabeen babesean Astialdi Hezitzailearen ikuspuntua helarazi.

ekintzak eta epeak**Ekintzak**

 Bilerak

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
											

**hartzaileak**

- Astialdi Foroko elkarteak
- Gurasoak eta familiak
- Administrazioa

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Parte hartutako bilerak
- Batzordea aipatzen den Astialdi Foroko aktak

2.1.3 Astialdi Sarea**deskribapena**

Euskal Herriko Haur Nerabe eta Gazteekin, gizarte esku-hartzean eta astialdi hezitzailean diharduten erakundeen sarea da.

2012an sortu zen Astialdi Foroko partaide diren elkarte batzuen eskutik eta EGKk bertan hartzen du parte, Foroa eta Sarearen arteko zubi izatearren.













helburuak

- Astialdiko Arloa eta elkarteak 3. sektore sozialeko arlo gisa finkatu.
- Euskadiko 3. Sektore Sozialesan, estatuan, zein Europa mailan, astialdi hezitzaileko elkarten ordezkari izan.
- Astialdiko eskola, federazio eta gainontzeko eragileen lana defendatu eta aldarrikatu.
- Astialdiko gainontzeko sareekin lan koordinatua egin.

ekintzak eta epeak**Ekintzak**

-  Bilerak
-  Batzarra
-  "Campamento en el Parlamento" 3. Fasea*

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
											
											

**hartzaileak**

- Astialdi Foroko elkarteak
- Administrazioak
- Gizartea

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Egin diren bilera kopurua
- Bileretako aktak
- Hedabideen erantzuna

2.2 HEZKUNTZA FORMALA**2.2.1. Hezkuntza Lan Taldea****deskribapena**

Hezkuntza, gazte **guztiei** eragiten dien gauza da; horregatik, EGKk zer esan handia duela uste dugu. Lan talde hau, arlo honetan lan jarraia egiteko taldea izatea nahi da. EGKk Hezkuntzaren inguruan duen diskurtsoa garatzeaz gain, aurrez egiten ziren ekintza puntualak egiten jarraitu nahi da.

helburuak

- Hezkuntza formaleko lan talde egonkorra osatu.
- EGKko Hezkuntza diskurtsoa garatu.
- Hezkuntzako instituzioekin elkarlana izan.

ekintzak eta epeak**Ekintzak**

- Bilerak
- "Campamento en el Parlamento" 2. Fasea*

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
		■	■	■	■			■	■	■	■
											■

**hartzaileak**

- Hezkuntza arloko gazte elkarteak
- Instituzioak
- Gizartea

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Bilerak kopurua eta aktak
- EGKren Hezkuntza diskurtsoa izatea
- “Campamento en el Parlamento” 2. Faseko parte hartzea

2.2.1. Eskola Kontseilua**deskribapena**

Euskadiko Eskola-Kontseilua, Euskal Autonomi Elkartearen eremuan, unibertsitateko ez besteko irakaskuntzaren guztizko egitaraugintzan aholkuak eskatu, eskuhartu eta zalantzak argitzeko goren-mailako ihardutze saila da.

helburuak

- EGKko Hezkuntza diskurtsoa defendatu.
- Elkarteak eta administrazioaren arteko bitartekari izan.

ekintzak eta epeak**Ekintzak**

- Bilerak (zehazteke)
- “Campamento en el Parlamento” 2. Fasea

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
		■	■	■	■			■	■	■	■

hartzaileak

- Hezkuntza arloko gazte elkarteak
- Instituzioak



- Gizartea

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Bilera kopurua eta aktak
- “Campamento en el Parlamento” 2. Faseko parte hartzea

2.3 JARRAIA

2.3.1. EUROPAKO DIRU-LAGUNTZAREN KUDEAKETA *

deskribapena

“Campamento en el Parlamento”, EGKk “Youth In Action” programako Diru Laguntzen 5.1. ildora eskatu duen egitasmoa da. Bere helburua, Astialdi Hezitzaileak gizarte politika publikoetako diseinu eta inplementazioan eragile aktibo gisa aldarrikatzeko espazio bat sortzea da.

helburuak

- Egitasmoaren koordinazio orokorra eta jarraipena egitea.
- Proiektuaren diseinua bideratzea.

ekintzak eta epeak

Ekintzak

- Egunerokotasuneko koordinazio lanak
- Bilerak
- Ekintzak
- Justifikazioa

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

**hartzaileak**

- Lantalde teknikoa
- Hezkuntza Formal eta Ez Formaleko elkarteak
- Instituzioak
- Gizartea

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Bilera kopurua
- Prozesuko parte hartzea
- Ekintzen ebaluaketa
- Proiektuaren justifikazio txostena

2.3.2. EGUNEROKOTASUNA**deskribapena**

Arlo bakoitzaren lan zehaztatik aparte, teknikariok egoitzaren kudeaketa lanetan lagundu behar dugu: telefonoari arreta eta deribazioa; hurbiltzen denari arreta eta deribazio zerbitzuak eskaini; materiala, dokumentazioa, eskutitzak, emailak... jaso artxibatu eta deribatu; oinarrizko bulego materialaren egoera aztertu eta erosketa eskaerak bideratu; informatika zerbitzuaren mantenuan lagundu; agenda egunean eraman eta koordinatu...

helburuak

- Egoitzetako lan teknikoak eta kudeaketa zereginak aurrera eraman.

ekintzak eta epeak**Ekintzak**

■ Egunerokotasuneko lanak

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE



hartzaileak

- Lantalde teknikoa
- EGKko elkarteak
- EAEko elkarte sareak
- EAEko administrazioak

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Hobekuntzarako proposamenak jaso.

[* “Campamento en el Parlamento”, Youth In Action programako Diru Laguntzen 5.1. ildoan esleitzearren zain]



3. BERDINTASUNA ETA ANIZTASUNA

3.1 EROTIK 2016 kolaborazioa

deskribapena

Donostiako hiria euskal biztanlegoaren ordezkari gisa 2016 urtean Europako Kulturaren Hiriburutza izango du eta hiri eredugarritzat joko dute kontinenteko beste herriek. Sexualitatea, gizon eta emakume sentitzeko moduak, **gure kulturaren parte izanik**, eredugarri izateko oraindik aurrerapauso handiak eman behar dituela kontsideratzen dugu hiritar askok. Horregatik, datozen lau urte hauetan, arlo honetan, gizarte berrikuntza egiteko elkarlanean ari gara. Emakume eta gizon izateko moduak, topaketa erotikoak dastatzeko erak, aitatasun eta amatasun ereduak, estilo estetikoak, desioen orientazioak, maitasun loturak edota erotikoki adierazteko erak **askotarikoak** dira, izatez. Baina banako, bikote eta talde askok oztopo garrantzitsuak aurkitzen dituzte euren buruak ezagutu, onartu eta pozik bizitzeko, baita ondokoek onartuak izateko ere. Normaltasunez bizitzeko aukera behar dugu, bereziki gaztaroko lehenengo urratsetik, garai hauetan hasiko direlako lehenengo harremanak eta norberaren identitatearen eraikuntza; ondoren, helduaroan, baldintzatuko dituzten bizipenak emango direlarik.

helburuak

Orokorrak:






- Sexualitateen aniztasunaren errespetua sustatu
- Gizon eta emakumeen aukera berdintasunean eragin

Zehatzak:






- EGKk Sexualitate aniztasun diskurtsoa garatu
- Gai honetan eman daitekeen sare lana aukeraz baliatu
- Gazteentzako doako sexu aholkularitzaren erabilera sustatu

ekintzak eta epeak

Ekintzak

-  Programa ezagutu- Bi bilera
-  Kolaborazio mota adostu eta sinatu
-  Larrunarri eskolako Sexu Heziketa ikastaroan aholku eman
-  Gipuzkoako Astialdi Foroan aurkeztu
-  Gipuzkoako AFrako Sexu Heziketa formakuntza saioa antolatu

Kronograma

URT	OTS	MAR
	 	 



hartzaileak

- Gipuzkoako Astialdi Foroko hezitzaileak
- EGKko parte diren gazte taldeak, aniztasuna oinarri duten taldeak. Guztiak.

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

EROTIK 2016 programarekin mantendutako kolaborazio harremana:

- Elkartruke kopurua
- EGKko kide diren elkarte azaldu dezaketen interes maila
- Formakuntza saioak , aholkularitzarik eskatu ote duten

3.2. Aniztasuna, genero eta gazteria ikuspegia

deskribapena

Trasbersalki laduko (ez)den gaia izaki, Gipuzkoa mailan (hutsik geratu den bulegoa barne), aniztasuna lantzen duten elkarte zein mugimenduekin sarea eta kontaktuak berritu. Jatorkin, Asociaion de Gitanos por el Futuro de Gipuzkoa (AGIFUGI), EH11Kolore, etab.

helburuak

- Aniztasuna sustatu
- Gazteentzako Aniztasun Foroa antolatu



4. KOMUNIKAZIOA

4.1. EGK-RI BURUZKO BIDEO KORPORATIBOA

deskribapena



Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak komunikazio-formatu berrietara egokitu behar du bere lana, gazteen artean bere mezua modu eraginkorrean zabaldu nahi badu. Hori dela eta, EGK-k bere estreineko bideoa egingo du 2013an. Zehazki, gazte-elkarteen sarearen lana gizarteratu nahi du lan horretan. 2012rako aurreikusitako proiektua baldin bazen ere, pasa den urtean hauxe erabaki zen: GazteEkin-en bideoetan eta komunikazioan ahalegina egitea, bideo korporatiboan egin beharrean. Beraz, EGK-k *pendiente* duen lan bat da bideo hau.

helburuak

Orokorrak:

- EGKren lana gizarteratu.

**ekintzak eta epeak****Ekintzak**

- Bideoaren behin-behineko gidoia idatzi.
- Ekoizpen lana (elkarrizketak lotu, grabazioak planifikatu...).
- Grabatu.
- Behin betiko gidoia idatzi.
- Editatu.
- Zabaldu.

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

hartzaileak

- Norbanako gazteak.
- EGK osatzen duten elkarteak.
- Bestelako gazte mugimenduak.
- Gazteria teknikariak.
- Gazteria arloko politikariak.
- Komunikabideak.

ebaluaketa irizpideak

Behin bideoa zabalduta, bideoaren inpaktuen jarraipena egingo du Komunikazio teknikariak (Youtubeko ikusleak, sare sozialetan interakzioak, egk.org webgunean bisitariak, komunikabideetan agerpenak...). Horrez gain, bai EGK-ko Batzorde Teknikoak bai Batzorde Iraunkorrak ere bideoaren ebaluazioa egingo dute bilera batean, eta aktan jasoko da.



4.2. 'SAL DEL CASCARÓN. OSKOLA APURTU' BIDEO LEHIAKETA

deskribapena

Gazteen parte-hartzea eta mobilizaziorako dei egiteko bideo lehiaketa izango da. Parte hartzaileek gazteen parte-hartzea, antolakuntza eta mobilizazioa ikustarazi/aldarrikatu egin beharko dute bideoetan.

helburuak

Orokorrak:







- Gazteen parte-hartzea eta mobilizazioa sustatu.

Zehatzak:









- EGKren lana zeharka ezagutarazi.

ekintzak eta epeak

Ekintzak

-  Bideo-lehiaketaren oinarriak idatzi.
-  Bideo-lehiaketan parte-hartzeko deialdia egin.
-  Bideoak jaso.
-  Bideoak gizarteratu.
-  Bideo onenak aukeratu.
-  Sariak banatu eta bideoen gizarteratze lana egin.

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
											

hartzaileak

- Norbanako gazteak.
- EGK osatzen duten elkarteak.
- Bestelako gazte mugimenduak.
- Gazteria teknikariak.
- Gazteria arloko politikariak.
- Komunikabideak.



Jarraipena eta ebaluazio irizpideak

Komunikazio teknikariak egingo du ebaluazioa, Batzorde Iraunkorreko komunikazio arduradunarekin batera, hainbat irizpideren arabera:

- Jasotako bideo kopurua.
- Jasotako bideoen mezuen edukia.
- Jasotako bideoen kalitatea.
- Bideoen ikustaldi kopurua.
- Sare sozialetan eragindako mugimendua.
- Komunikabideetan agerpenak.
- Jasotako iradokizun eta proposamenak.

4.3 APADRINA A UN JOVEN. SOS GAZTE ATZERRIRATUAK.

deskribapena

Azkenaldian, gazte pilo bat joan behar izan da atzerrira, etorkizun baten bila. Horietako askok, hemengo aukera ezak bultzatuta, politika publiko ez-nahikoek edo erratuen ondorioz, neurri batean. Hori dela eta, "Apadrina a un joven. SOS Gazte atzerriratuak" proiektuarekin (behin-behineko izena da), gazteen *derrigorrezko* atzerriratzeen errealitatea ikustarazi nahi dugu Euskadiko Gazteriaren Kontseilutik. EGK-k *erbesteratutako* euskal gazteen ahotsa ezagutarazteko konpromisoa hartuko du eta, ahal izatekotan, beste eragile batzuekin batera gauzatuko du.

Horretarako, blog bat sortuko du eta gazteok politikariei postalak idazteko deialdia zabalduko du ("Bidali zure postala atzerritik"). Postala formatu ezberdinetan izan daiteke: fisikoa, mail-ez, bideo bat, "Tweet-postala"... eta abar.

Ekarpen horiek guztiak blogera igoko ditugu eta medio propioen bidez ezagutaraziko ditugu. Behin postalak jasotzeko epea amaituta, atzerriratuko gazte guztien *postalak* (iritziak, aldarrikapenak, iradokizunak, proposamenak, protestak...) politikari eta teknikariei helaraziko dizkiegu.

Proiektu hau bi arloen artean gauzatuko da:

Komunikazio arloa: (Bizi-baldintzak materialak arloko teknikariarekin batera).

- Bloga sortu, esloganak egin, edukiak kudeatu, mezuak diseinatu...
- Postalak zabaldu (Twitter, Facebook, Tuenti, Piztu, Gazte Borraste, Berriz Berri, e-maila...).
- Komunikabideekin harremana kudeatu.

Bizi-baldintzak materialak arloko teknikaria: (Komunikazio teknikariarekin batera).

- Gazte erbesteratuen errealitatearen aurrean, EGKren diskurtsoa landu eta adostu.
- Atzerriratuko gazteekin harremanetan egon.
- Bestelako eragileekin harremanetan egon.
- Proiektua eta memoriak idatzi.
- Komunikabideetan elkarrizketak egiteko laguntza eman.



Bestalde, presidentea eta Batzorde Iraunkorra izango dira eragile politiko eta sindikalekin eta komunikabideen aurrean diskurtsoa publikoki defendatuko dutenak eta proiektuaren zabalpena egingo dutenak.

helburuak

Orokorrak:

- Gazteen migrazio prozesu berriak (eta migrazio horiei lotutako arazoak) ikustarazi.

Zehatzak:

- Emigrazio prozesu hauek bultzatzeko administrazioak diseinatutako politika publikoak aztertu.
- Gazteriaren Kontseilu bezala, gazte atzerriratuen arazoaren inguruko diskurtso bat landu eta adostu.
- Gazteriaren Kontseiluaren diskurtsoa instituzio eta administrazioei helarazi.
- “Kanpora joateko” gonbidapenen aurrean gazte eragileek sortzen dituzten aldarrikapen eta diskurtsoak gizarteratu.

ekintzak eta epeak

Ekintzak

- Blog bat abiatu.
- “Bidali zure postala” deialdia egin.
- Jasotzen diren postalen zabalpen lana egin.
- Proiektuaren emaitzak eragile politiko eta sindikalei eta bestelako gizarte mugimenduei helarazi.
- Komunikabideetan proiektuaren emaitzen berri eman.

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

hartzaileak

- Migratutako gazteak.
- Hemen aukerarik aurkitzen ez duten gazteak.
- Politikari eta teknikariak.
- Gizarte zibila / gizarte mugimenduak.
- Hiritarrak.

**jarraipena eta ebalueketarako irizpideak**

Komunikazio arloak eta Bizi-baldintzak materialak arloko teknikariek egingo dute ebaluazioa, hainbat adierazle kontutan izanik:

- Sortutako diskurtsoaren sakontasun maila.
- Deialdiak sortutako erantzun maila (jasotako postal kopurua eta kalitatea, sare sozialetan sortutako mugimendua, eragile politikoen erreakzioa...).
- Komunikabideetako agerpen kopuru eta kalitatearen maila.

4.4 'CAMPAMENTO EN EL PARLAMENTO' KOMUNIKAZIO KANPAINA**deskribapena**

Astaldi Foroak burutuko duen "Campamento en el Parlamento" proiektuaren komunikazio kanpaina gauzatuko du Komunikazio teknikariak, Hezkuntza teknikariarekin batera. Hemen aurreikusitako komunikazio-jarduna, dena den, Astaldi Foroarekin adostu behar izango da.






helburuak**Orokorrak:**

- "Campamento en el Parlamento" proiektuaren arrakasta bermatu.







Zehatzak:

- Parte-hartzaileak lortzeko komunikazio lana egin.
- Astaldi, hezkuntza eta administrazioko eragileei proiektuaren berri eman.
- Proiektuaren emaitzak gizarteratu.

ekintzak eta epeak**Ekintzak**

-  Proiektuaren irudi korporatiboa eta mezuak landu.
-  Hartzaileei deialdia egin.
-  Ekimena medio propioen bidez gizarteratu.
-  Proiektua gauzatu bitartean, parte-hartzaileekin komunikazioa bermatu.
-  Komunikabideetan proiektuaren emaitzen berri eman.

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
											



hartzaileak

- Astialdi taldeak, eskolak, federazioak.
- Hezkuntza formaleko eragileak (ikasle taldeak, irakasleak...).
- Politikari eta teknikariak (Gazteria, Hezkuntza eta Gizarte Politikak).
- Gizarte mugimenduak.
- Gazteak eta hiritarrak oro har.

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Komunikazio arloak eta Astialdi Foroak egingo dute komunikazio jardunaren ebaluaketa, finkatuko dituzten adierazleen arabera:
 - Proiektuaren irudi korporatiboa eta mezuen egokitasuna.
 - Bidalitako e-maila kopurua/kalitatea eta erantzun maila.
 - Tresna propioen bitartez egindako komunikazioaren eraginkortasun maila (webgunea, sare sozialak, Berriz Berri-a...).
 - Komunikabideetan agerpen kopurua eta kalitatea.

4.5. WEB ORRIALDEA ETA SARE SOZIALAK KUDEATU



deskribapena

Webgunea (www.egk.org) eta sare sozialetan ditugun profilak (Twitter, Facebook eta Tuentin) eguneratzen ditu EGK-k ia egunero.



helburuak

- EGKren atarian EGKren jardueren informazio gaurkotua argitaratzea.
- EGKren argitalpenak interneten eskuragarri jartzea.
- EGK-elkarteen eta EGK-koak ez diren elkarten jardueren berri ematea, webguneko agendan.
- Gazteei buruz edo gazteentzat interesgarriak izan daitezkeen azken orduko albisteak jasotzea.
- Elkarten direktorio gaurkotu bat mantentzea.
- EGK-ren irudia zaintzea.
- Hori guztia sare sozialen bidez gizarteratzea.

ekintzak eta epeak

la egunero gaurkotzen ditu Komunikazio Arloak bai webgunea (www.egk.org) bai sare sozialetan kudeatzen dituen profilak ere (Twitter, Facebook eta Tuentin).

hartzaileak

Webguneko bisitariak (28.813 bisita urtean).

Sare sozialetako jarraitzaileak (3.379 Facebooken, 940 Twitterren eta 500 baino gehiago Tuentin; Instagram-en, 19 jarraitzaile; Youtuben 500 bisita baino gehiago).

Profilari dagokionez, oro har gazteak, elkarteak edo gazte eragileak dira.

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

Googke Analytics bitartez neurtzen ditu Komunikazio Arloak webgunera bisitak.

Bestalde, sare sozialen jarraipena sare sozialen beraien jarraipen-sistema erabiliaz egingo da.



4.6. PIZTU! BULETIN ELEKTRONIKOA

deskribapena



Piztu! hamabostean behin komunikazio teknikariak bidaltzen duen buletin digitala da. 2012an estreinatu dugu, maiatzaren 23an. Bertan, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren azken albisteen berri ematen du EGK-ko komunikazio arloak. Horrez gain, EGKren, EGK-ko kide diren taldeen eta beste elkarte batzuen agenda-proposamenak biltzen ditu buletinak. Bestetik, lehen GaztePress buletina zena ere barnebiltzen du. Zehazki, gazteekin lotuta komunikabide ezberdinek argitaratzen dituzten albistek biltzen ditu atal horrek. Beste zenbait eduki ere baditu Piztu buletinak ere: EGKren azken argitalpenak, Berriz Berria, EGKren Gazte Borraste irratsaioak eta bestelako lotura interesgarriak, esaterako.

helburuak

HELBURU OROKORRA

- Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren, gazte elkarten eta bestelako gizarte eragileen lana eta deialdiak ikustaraztea eta balioan jartzea.

HELBURU ZEHATZAK

- Komunikazio baliabide gutxi dituzten gazte elkarte eta gizarte eragileei komunikazio euskarri bat eskaintzea.
- Gazte elkarteek eta gizarte eragileek beste elkarte eta eragile batzuk egiten dutenaren berri jasotzea.
- Gazte elkarten eta gizarte eragileen lanaren eta deialdien aniztasuna ikustarazi eta balioan jartzea.
- Euskara sustatzea (%60-%70euskaraz).

ekintzak

Bi/hiru astean behin osatu eta bidali da Piztu buletina.



hartzaileak

1.225 harpidedun:

- EGKko elkarteak.
- Beste gizarte mugimendu batzuk.
- Gazte-bulegoak.
- Gazteria arloko teknikari eta politikariak.
- Harpidetza egin duten norbanakoak.

Sare sozialetako 5.000 jarraitzaileak:

- EGKko elkarteak, beste gizarte mugimendu batzuk, norbanakoak, gazte informazio bulegoak...

jarraipena eta ebaluazio irizpideak

Komunikazio arloak Piztu buletinaren ebaluazioa egingo du urte-amaieran, aldez aurretik finkatutako irizpideak jarraituz:

- Maiztasuna.
- Harpidedun kopurua/mota.
- Albisteen aniztasun maila.
- Buletinean agertutako eragileen aniztasun maila.
- Jasotako iradokizunak.



4.7. BERRIZ BERRI

deskribapena



Entzun ez dena, ez dago esana. Edo, beste era batera esanda: komunikatzen ez dena, egina ez balego bezala geratzen da askotan. Egiten dutena komunikatu behar dute gazte elkarteek eta jendarte eragileek, gizarte mailan eragina izan dezan. Baina, tamalez, elkarte askok eta askok ez dute komunikazioa lantzeko behar adina baliabiderik, ez eta komunikatzeko euskarririk ere ez. Hori dela eta, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak helburu argi bat du (beste batzuen artean): gazte elkarte eta gazte eragileen megafono izatea. Alegia, komunikazio-baliabideak erraztea. Horretarako, hainbat zerbitzu eta euskarri eskaintzen ditu. Horietako bat Berriz Berria da: hots, 1999az geroztik, milaka gazte elkarte, jendarte mugimendu, liburutegi, institutu, fakultate, alderdi, politikari, sindikatu eta gazte bulegok jaso duten poster-agenda. Bertan, **hilero-hilero 10-12 albiste** argitaratzen ditu Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak. Orokorrean, baliabide gutxi dituzten gazte elkarte eta gizarte eragileen deialdiak biltzen ditu posterrak, bai eta gazte-zerbitzu zein parte-hartzerako euskal agentziena ere. Gehienetan elkarteek edo gizarte eragileek eurek bidaltzen dituzte bere deialdiak eta albisteak Gazteriaren Kontseiluko Komunikazio Arlori, Berriz Berrian argitaratu ditzan. Horrez gain, enkarateak ere egiten ditu EGK-k: hau da, elkarteek beraiek hala eskatuta, eskuorriak, kartelak, bideoak edota txostenak bidaltzen ditu Berriz Berriarekin batera. Benetan estimatua da Berriz Berria. Zergatik? Elkarte askok eta askok ez dutelako beste modurik milaka postontzi eta mail-helbidera heltzeko. Horregatik estimatzen dute Berriz Berria. Batetik, bertan bere deialdiak zabaldu ditzaketelako. Bestetik, informazioa jasotzeko ere balio zielako. Zehazki, EAEko **1.300 postontzi** ezberdinetara iristen da, paperean. Zehazki, gazte-elkarteei, beste gizarte mugimenduei, gazte bulegoei, udaletxe eta aldundietako gazteria arloei eta liburutegi eta gizartetxeei bidaltzen die Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak. Horrez gain, Euskal Herriko **beste 1.225 helbidetara iristen da Piztu** buletinaren bitartez. Bestalde, **Tuenti, Twitter eta Facebooken Gazteriaren Kontseiluak dituen 5.000 jarraitzaile inguruk** ere jasotzen dute Berriz Berri poster agenda. Horiei guztiei www.egk.org webgunearen bisitariak gehitu behar zaizkie (28.000 bisita urtean), bertatik ere deskargatu baitaiteke.



helburuak

Orokorrak:





- Gazte elkarteen eta gizarte eragileen lana eta deialdiak ikustaraztea eta balioan jartzea. Komunikazio baliabide gutxi dituzten gazte elkarte eta gizarte eragileentzat komunikazio euskarri bat eskaintzea.

Zehatzak:




- Komunikazio baliabide gutxi dituzten gazte elkarte eta gizarte eragileentzat *komunikazio euskarri bat eskaintzea*.
- Gazte elkarteek eta gizarte eragileek beste elkarte eta eragile batzuk egiten dutenaren berri jasotzea.
- Gazte elkarteen eta gizarte eragileen lanaren eta deialdien aniztasuna ikustarazi eta balioan jartzea.
- Euskara sustatzea (%70-80 euskaraz).

ekintzak eta epeak

Ekintzak

-  Berriz Berrian informazioa txertatzeko deialdia ireki
-  Berriz Berria idatzi eta maketazioa eskatu
-  Berriz Berria zabaldu (enkartarekin, kasua kasu).
-  Berriz Berriaren ebaluaketa egin

Kronograma (hiler, uztaila eta abuztuan izan ezik).

Lehenengo astea	Bigarren astea	Hirugarren astea	Laugarren astea
			
			
			

-  Abenduan: Berriz Berriaren ebaluaketa egin



hartzaileak

- **Papereko alearen 1.300 harpidedun EAEn:**
 - EGKko elkarteak.
 - Beste elkarte batzuk.
 - Gazte-bulegoak.
 - Liburutegi eta gizartetxeak.
- **Piztu buletinaren bitartez 1.225 harpidedun:**
 - EGKko elkarteak.
 - Beste gizarte mugimendu batzuk.
 - Gaztetxeak.
 - Gazte-bulegoak.
 - Gazteria arloko teknikari eta politikariak.
 - Harpidetza egin duten norbanakoak.

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

Urte amaieran, komunikazio arloak Berriz Berri-aren ebaluazioa egingo du, hainbat irizpide jarraituz:

- Epeen betetze-maila.
- Albisteen eta eragileen aniztasuna.
- EGK-ko elkarten erabilera-maila.
- Enkarte kopurua eta kalitatea.
- Jasotako iradokizun eta proposamenak.



4.8. GAZTE BORRASTE IRRATSAIOA TAS TAS IRRATI LIBREAN



deskribapena

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak Gazte Borraste irratsaioa egiten du bi astean behin Tas Tas irrati librea (97 FM Bilbon). Gazte-errealitate ezberdinei buruzko ordu bateko espazioa da.

Bi astelehenean behin emititzen da, 20.00etatik 21.00etara. Hurrengo egunean, asteartean, 09.00etatik 10.00etara emititzen da berriro ere. Horrez gain, zatirik txukunenak larunbatetan Tas Tas eta Irola irrati libreek elkarrekin egiten duten Al Abordaje saioan ere emititzen dira. Webgunean ere podcastak eskuratu daitezke, <http://tas-tas.org/web/eu/gazte-borraste> helbidean.

Gazte Borraste irratsaioa komunikazio arloak egiten du, gainerako teknikarien parte-hartzearekin (irratsaio bakoitzeko, bi esatari: komunikazio teknikaria, eta beste teknikari bat). Batzorde Iraunkorrek ere parte hartzeko aukera du.

Aurten, gainera, EGK-ko elkarteek euskarri hau bereganatu dezaten saiatuko da Komunikazio teknikaria. Nola? EGK-ko elkarteek eurek irrati-tarte propio bat izan dezaten Gazte Borrasten, haiek eurek gidatuta.

Gaur egun, saioak bi gako ditu: gazteak eta elkartegintza. Bi zutabe horien gainean eraikitzen ditu EGK-k eduki guztiak. Hiru atal nagusi ditu irratsaioak:

Titularrak eta Suplenteak: gazteei buruz eta elkartei buruz komunikabide ezberdinetan argitaratutako albisten berri ematen duen atala.

Haria eta orratza: gai zentrala. Atal honetan, elkarte eta gazte mugimenduekin elkarrizketa eta solasaldiak egiten ditu EGK-k.

Agenda: jendarte mugimendu ezberdinen deialdiak biltzen dituen atala.



helburuak

HELBURU OROKORRA

- Gazteen **errealitate ezberdinen berri** ematea, begirada gazte batetik.

HELBURU ZEHATZAK

- Komunikabide handietan **lekurik ez dituzten ahotsak** entzunarazten ditu.
- **Gazte elkartegintzaren bozgorailu** izan nahi du.
- Gazte elkarteei **mikro-irekiko espazio bat** eskaintzen du.
- Gazte elkarteak eta mugimenduak **komunikazioan trebatzen** laguntzen du.
- Gazte elkarte eta mugimenduen **audioteka** (audio material bilketa) osatzen laguntzen du.
- Gazte **elkarrekin harremana** estutzen laguntzen du.
- Bere inguru hurbilenarekin konpromisoa duen eta bere inguru hurbilenean parte hartzen duen tokian-tokiko **komunikabide bat** sustatzen laguntzen du, euskaraz.
- Gizarte zibil antolatuaren **komunikazio eskubidea** gauzatzen laguntzen du.

Gazteak abiapuntu eta gazteak jomuga dituen irratsaio bakarrenetarikoa da Gazte Borraste Euskal Herriko irratigintza-parrillan. Gazteria zeharkako-ikuspuntu bezala txertatzen du jorratzen diuen gai guztietan. Izan ere, EGK-k uste baitu Politika guztiek (eta ez soilik Gazteria Politikak) eta proiektu guztiek (eta ez bakarrik gazteen proiektuak) eragina izan dezaketela gazteen errealitate anitzetan. Mundua gazteen ikuspuntu ezberdinetatik begiratu nahi du Gazte Borrastek. Begirada hori da seguraski irratsaioa berezi bilakatzen duena.

ekintzak

Aipatu bezala, EGK-k bi astean behin egiten du irratsaioa. **Astelehen eta asteartean** emititzen bada ere, irratsaio grabatua da eta, hortaz, edozein egunetan grabatu ohi da, astean zehar, elkarrizketatutako elkarten ordutegiaren arabera.

Hauek dira irratsaioak eskatzen dituen lanak:

- Ekoizpen lana. Elkarrizketatuekin hiztordua lotu, musika eta kuinak aukeratu...
- Gidoia idatzi.
- Irratsaioa grabatu.
- Irratsaioa editatu eta zerbitzarira igo.
- Irratsaioaren podcacst-a egin.
- Irratsaioaren difusio-lana egin.

hartzaileak

- Tas Tas irratiko entzuleak.
- EGK osatzen duten elkarteak eta beste gizarte mugimendu batzuk.
- EGK Internet bidez jarraitzen duten gazteak eta norbanakoak.
- Gazte elkarte eta mugimenduak eurak, euren mezuak helarazteko baliatzen baitute Gazte Borraste, bai eta komunikazioan trebatzeko ere.



jarraipena eta ebaluazio irizpideak

Komunikazio teknikariak Gazte Borrasteren gai eta elkarrizketatuen jarraipen eguneratua egiten du ikasturtero, eduki eta parte-hartzaileen aniztasuna bermatze aldera.

4.9. GAZTE KOMUNIKATZAILEEN TOPAKETEN ABIATZEA

deskribapena

GazteKom

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak gazte komunikatzaile euskaldunen lehenengo topaketak suspertu nahi izan zituen 2012an. GazteEkin prozesuak eskatutako ahalegin maila altua dela-eta, ezin izan du proiektua gauzatu. Hori dela eta, 2013rako “irakasgai pendiente” gisa uzten du, denbora izatekotan, aurrera eramateko. Gazte komunikagintzaren sare bat osatzea beharrezkoa dela uste du EGK-ko Komunikazio Arloak. Izan ere, gaur egun “informazioaren gizartean” bizi garela errepikatzen baitigute behin eta berriz. Eta, “informazioaren gizarte” horretan, informazioa eta komunikazioa gizartearen bihotzean dauden zerbait dira. Alegia, gizartearen eta boterearen muinean dagoen zerbait. “Muin” edo “bihotz” horretan edo horretatik kanpo egotean dago gakoak: komunikatzeko eta informazioa zabaltzeko gaitasunik eta baliabiderik ez dutenek, bazterkeria mota bat jasaten dute (nolabait esatearren) informazioaren gizartean. Horregatik da hain garrantzitsua gizarte zibilak komunikazio gaitasun eta baliabideak izatea. Komunikazioa ezin baitaitekeelako komunikazio-enpresa gutxi batzuen esku geratu. Demokratizatu behar da. Gizarte zibil antolatuaeren esku jarri ere, komunikazio-ezberdintasunak pixkanaka pixkanaka gainditzeko (komunikazio desberdintasunek bestelako gizarte-ezberdintasunak ere eragiten dituztelako -eta alderantziz-). Hori guztiagatik, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak komunikazioan trebatu eta jabetu nahi ditu gazte taldeak. Nola? Batetik, komunikazio-jabekuntzaren garrantziari buruzko eztabaida piztuz. Bestalde, komunikazio tresnak eta baliabideak eskaintzen lagunduz (pertsonek, azpiegiturak, euskarriak, kontaktuak); eta, bukatzeko, gazte komunikatzaileen arteko loturak josiz: hots, kazetariak, komunikazio-teknikariak, blogari eta hacktibistak zein komunikabide propioak garatzen dituzten gazteak euren artean harremanetan jarriz, komunikazio arloko esperientziak elkarbanatzeko eta gazteen komunikazio gaitasunak indartzeko proposamen bateratuak egin ahal izateko. Hori guztia egiten hasi ahal izateko, Gazteriaren Kontseiluak GazteKom topaketak abiatu nahi ditu (behin-behineko izena da GazteKom). Euskal Herri osoko gazte komunikatzaileei irekiko zaie deialdia eta Bilbon gauzatuko dira. Nabarmendu daiteke ere Euskal Herriko Unibertsitatearekin (UPV-EHU) elkarlanerako aukerak aztertuko direla. EGK-k ez ditu topaketa hauek bere kasara egin nahi: gazte komunikatzaile ezberdinekin prestatu nahi ditu, ukondo ukondo. Asmoa hau da: 2013ko urri-azaroan burutzea topaketak, ahal izanez gero (eta, beti ere, “Campamento en el Campamento”, “Apadrina a un Joven” eta “Emperdedores. La cara B del emprendizaje” proiektuei lehentasuna emanez).






**helburuak****Orokorrak:**

- Gazte elkarte eta mugimenduak komunikazioan-jabetzen laguntzea.





Zehatzak:

- Informazioaren gizartean komunikazio-jabekuntzak duen garrantziari buruzko eztabaida piztu.
- Komunikazio-sistema ezberdinen inguruko ezagutza piztu.
- Gazteen komunikabide propio ezberdinak ezagutarazi.
- Gazte komunikatzaileen sarea josten lagundu, esperientziak elkarbanatzeko eta gazteen komunikazio gaitasunak indartzeko proposamen bateratuak egin ahal izateko.
- Gazte elkarteei komunikazio gaitasun eta baliabideak erraztu.
- Euskara sustatu (topaketak euskara hutsean edo neurri handi batean euskaraz izatea da helburua).
- Gizarte-mailan gazte komunikatzaileen lana eta balioa ikustarazi (gazteen inguruan ohiko komunikabide handi askok eman ohi duten irudiarekin kontrajarriz).

ekintzak eta epeak**Ekintzak (hilero)**

-  Gazte komunikatzaile ezberdinekin kontaktuak eta bilerak.
-  GazteKom topaketak (behin behineko izena) antolatzeko lantaldea osatu.
-  GazteKom topaketen diseinua egiten hasi.
-  Topaketen gauzatzea antolatu
-  Topaketak gauzatu.

Kronograma (hilero, opor-aldietan izan ezik).

Lehenengo hiru hilekoa	Bigarren hiru hilekoa	Hirugarren hiru hilekoa	Laugarren hiru hilekoa
			
			

hartzaileak

- Gazte elkarte eta mugimenduetako komunikazio teknikariak.
- Komunikabide propioak dituzten gazteak.
- Kazetari gazteak.
- Blogari, *sareleri* eta hacktibista gazteak.
- Komunikazio ikasleak.
- Gaian interesa duten norbanakoak (gazteak zein heldu eta nagusiak).



Jarraipena eta ebaluaketa irizpideak

Topaketen diseinuaz arduratuko den lantaldeak erabakiko ditu ebaluaketa irizpideak, topaketaren beraren diseinuaren arabera.

4.10 BARNE KOMUNIKAZIOA

deskribapena

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren baitan komunikazioa errazteko ardura du Komunikazio Arloak, bai teknikarien artean, bai teknikarien eta Batzorde Iraunkorraren artean, bai Batzarra osatzen duten elkarteekin komunikazioa ere. EGK-ren barne-komunikazioak EGK-ren funtzionamendua eta eraginkortasuna bera baldintzatuko du neurri handi batean, eta hainbat hutsune betetzeko ordua iritsi da.

helburuak

Orokorrak:

- EGK-ren baitako barne-komunikazioa hobetu.

Zehatzak:

- EGK-ko arlo tekniko ezberdinen arteko komunikazioa erraztu.
- EGK-ko lantalde teknikoa eta Batzorde Iraunkorraren arteko komunikazioa indartu.
- EGK-ko Batzarra osatzen duten elkarteekin barne-komunikazioa hobetu.
- EGK-ko lantalde teknikoari eta Batzorde Iraunkorrari komunikazio-laguntza eman

ekintzak eta epeak

Ekintzak

-EGK-ren lanarekin zerikusia duten gaurkotasunezko albisteak bildu eta banatu.

EGK-ren prentsa agerpenak jaso eta banatu.

Batzorde Iraunkorrari eta Batzarreko elkartei EGK-ren jardueraren berri eman, medio propioen bitartez.

-Teknikariei eta Batzorde Iraunkorrari komunikazio-laguntza eman (zuzenketak, aholkularitza, estilo-ildoak...).

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

**hartzaileak**

- EGK bera.

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

2013ko abenduan barne-komunikazioari buruzko diagnostiko-bilera egingo du Komunikazio Arloak teknikariekin eta Batzorde Iraunkorarekin batera. Era berean, Batzarra osatzen duten elkarteek bidaltzen dituzten iradokizun eta balorazioak jasoko ditu.

4.11 KOMUNIKABIDEEN BITARTEZKO BESTELAKO KANPO KOMUNIKAZIOA**deskribapena**

Komunikabideen bitartez Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren jarduera gizarteratzeko lana, baita EGK-k edo EGK-ko elkarteek parte-hartzen duen ekimenen berri emateko lana ere.

helburuak**Orokorrak:**

- EGK-ko eta EGK-ko elkarten jarduerak eta lana ezagutaraztea da helburu nagusia.

ekintzak eta epeak

Aldian-aldiko prentsaurrekoak / prentsa-oharrak / manifestuak / komunikatuak (...).

Protokoloen aktibazioa (lan-istripuak, gaztetxeen hustea...).

Deialdiak agendatan txertatu.

Iritzi artikulua txertatu.

Elkarrizketak adostu.

Komunikatuak idatzi, zuzendu, bidali...

Komunikabide ezberdinekin kolaborazioak kudeatu (Goitibera aldizkaria, adibidez)

Unean-uneke kanpaina eta egitasmoen arabera zehaztu behar izango dira ekintzak.

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE



hartzaileak

EGK bera, elkarteak, gazteak, irakurle/entzule/ ikusleak...

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

Kanpaina eta egitasmo bakoitzarentzat ebaluaketa irizpide batzuk finkatu beharko dira. Dena den, agerpen guztien jarraipena egingo du Komunikazio Arloak, eta kanpainan finkatutako helburuen arabera balorazioa egingo du, memorian.

4.12. BESTELAKO LAN BATZUK

- “Emperdedores: la cara B del emprendizaje” proiektuaren komunikazio kanpaina (ikusi Bizi-baldintza materialak arloko plangintza).
- Barne lana: bilera teknikoak, Batzorde Iraunkorarekin bilerak, Batzar Orokorra.
- Urteko plangintza eta memoria idatzi.
- Egoitzako kudeaketa lana (jendarteari harrera, telefonoa, bisitak, konponketen kudeaketa, Arabako Koordinatzaile ohiaren e-mailaren jarraipena...).
- Bestelakoak.

OHARRAK

- Elkarteentzat komunikazio ikastaroak desagertzen dira.
- Ahotik At aldizkari-seriea desagertzen da.
- Durangoko Azokako deialdia desagertzen da.
- Zerbitzu katalogoa berritzeko dirurik ez dago.

Aldiz, hauexek dira proiektu berriak:

- EGK-ren bideo korporatiboa.
- “Sal del cascarón” bideo lehiaketa.
- Kanpaina konkretuak:
 - Apadrina a un joven. SOS gazte atzerriratuak.
 - Campamento en el Parlamento. Udalekuak parlamentuan.
 - Emperdedores. La cara B del emprendizaje.
- Gazte Borraste elkartearen esku jartzea.
- GazteKom.



5. PARTEHARTZEA

5.1 EGKren ESTILO LIBURUA

deskribapena

Martxoko Batzarrean Kontseiluaren berregituraketa onartuz gero, zenbait gai transbertsalki landuko dira hortik aurrera EGKn: kulturartekotasuna, generoa, euskara eta ingurumena. Hala, Partehartze arlotik orain arte EGKren baitan arlo hauek nola landu diren aztertuko da, eta baita EAEko beste zenbait eragilek (elkarteak, administrazioko sailak, etab.) nola lantzen duten ere. Ondoren, jasotakoaren inguruko hausnarketa bideratuko da estilo liburu bat landu ahal izateko, EGKtik etorkizunera begira arlo hauek nola landuko diren definituko dituena.

helburuak

Orokorrak:




- Gai transbertsalak nola landuko diren zehaztu.
- EGKren lan egiteko era finkatu.








Zehatzak:

- Administrazioetik eta elkarteetatik gai hauen lanketa nolakoa den aztertu.
- EGKn orain arte egindako lana aztertu.
- Estilo liburua idatzi.

ekintzak eta epeak

Ekintzak

-  EGKn egindako lana aztertu
-  Eragilek egiten duten lana aztertu
-  Liburua idazten hasi

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
											
											
											

hartzaileak

- EGKko elkarteak
- EGKko Batzorde Iraunkorra
- EGKko lan talde teknikoa

**jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak**

Eragile eta administrazioarekin egindako bilerak eta hauen edukia. EGKtik egindako lanaren azterketa eta dokumentazio lana. Liburuaren idazketaren hasiera.

5.2 EGKko KIDE DIREN ELKARTEEN DIAGNOSIA**deskribapena**

Partehartze teknikariak EGKko kide diren elkarteak ezagutu eta haiekin biltzeko ardura hartuko du. Hala, haien lana ezagutzeaz gain, elkarte hauen gaur egungo egoeraren jakitun ere izango da: kide kopurua, egiten ari diren lana, dituzten proiektuak, egoera ekonomikoa, etab. Era honetan, elkarte hauen kezka, behar eta nahiei era eraginkorrean eman ahal izango zaie EGKtik.

helburuak**Orokorrak:**

- EGKko elkarten diagnostia egin

Zehatzak:

- Elkarteekin bildu
- Elkarten behar, egoera, proiektuak ezagutu.

ekintzak eta epeak**Ekintzak**

- Elkarteekin bilerak egin
- Elkarten diagnostia eguneratua idatzi

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

hartzaileak

- EGKko elkarteak

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

Ospatutako bilera kopurua eta jasotako informazioarekin egindako hausnarketa.



6. PRESIDENTZIA

6.1 BATZORDE IRAUNKORRA

deskribapena

Batzorde Iraunkorra EGKren baitako erabaki-organoa da. EGKko eskubide osoko kide diren elkarteetako 11 ordezkariak osatzen dute, hurrengo moduan banatuta: presidentea, 2 presidenteorde, diruzaina, idazkaria eta 6 batzordekide. Asanblada Orokorra urtero ospatu arren, Batzorde Iraunkorraren eraketa 2 urtetan behin erabakitzen da. Bere ardura da EGKren gaineko erabakiak hartzea, lan-ildoak ezartzea eta EGKren irudi publikoa landu eta aurrera eramatea.

2013 honetan, legeak ezartzen duen moduan, Batzorde Iraunkor berria osatuko da. Martxoan ospatuko den EGKren Batzar Orokorrean Batzorde Iraunkorreko postu guztiak betetzeko kideak nortzuk izango diren bozkatuko da. Hala, honen ostean 2012ko Batzorde Iraunkorreko kideen eta kide berrien arteko erreleboa emango da, ondoren lanarekin ahalik eta era bateratuenean jarraitu ahal izateko.

Batzorde Iraunkorretik aurreko urtetik hartuta dauden erabakiekin aurrera egingo da 2013an zehar eta urte honi dagozkion erabaki berriak hartuko dira.

Bestalde, Presidenteak zubi lana egingo du Batzorde Iraunkorraren eta Batzorde Teknikoaren artean, baina arazo ekonomikoak direla medio lehen zegoen Arloetako Koordinatzailearen lanpostua beteko ez denez, Batzorde Iraunkorraren bileretara teknikariak azalduko dira, txandakatuta. Hala, EGKren lana modu zuzenagoan ezagutzera emango da Batzorde Iraunkorrean eta erabakiak hartzeko era erraztuko da. Honetaz gain, bi hilabetean behin Batzorde Iraunkorra eta Lan Talde Tekniko osoa elkartuko dira baita ere, asmo honi laguntzeko.

helburuak

Orokorrak:

- EGKri dagozkion gaien inguruan erabaki.
- EGKren kide diren taldeekiko komunikazioa landu.
- EGKren irudi publikoa landu

Zehatzak:

- Batzorde Iraunkorra osatu, gorpuztu, taldetasuna landu.
- Batzorde Iraunkorraren erabakigarritasuna handitu.
- Egindako ardura banaketak abian jarri.

**ekintzak eta epeak****Ekintzak (urte osoan zehar)**

- Batzorde Iraunkorraren bilerak
- Lan Talde Teknikoarekin bilerak
- Irudi publikoa

Kronograma (hilero)

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
											
											
											

hartzaileak

- Batzorde Iraunkorreko kideak.
- Batzorde Teknikoa.
- EGKko lan-talde eta elkarteak.
- Komunikabideak eta gizartea.

ebaluaketa irizpideak

- Bileren maiztasuna.
- Bileren eraginkortasuna.
- Erabakien gauzatzea.
- Gizarte-oihartzuna.
- Elkarteen erantzuna.



6.2 ARLOETAKO KOORDINAZIOA

deskribapena

Batzorde Teknikoa EGKko teknikariek osatzen dute, bakoitzak bere arloan egunero lan egiten duelarik. Hala ere, lan talde honetan aldaketak aurrikusten dira, egoera ekonomikoak eraginda. 2012an zehar 9 langile egon baziren, 2013ko martxoan ospatuko den Batzar Orokorraren ostean 6 langilek egingo dutela lan aurrikusten da. Lurralde koordinatzaileak eta Berdintasun teknikaria desagertuko dira, eta arlo berri bat sortuko da, Partehartzea. Lurraldetasun banaketa behin aldaketa hau emandakoan zehaztuko da.

Presidentziaren aldetik lan-taldearen kohesioa eta koordinazioa bermatuko dira eta zubi lana egingo da Batzorde Iraunkorraren eta Batzorde Teknikoaren artean, aurrenekoan hartutako erabakiak bigarrenora trasladatu eta bigarrenaren lana aurrenekoari transmititu ahal izateko. Hala bi Batzordeen dinamikak uztartuko dira.

Honetaz gain, aurrikusten den Partehartze arlorako teknikariaren aukeraketa prozesua Presidentziazatik koordinatuko da, Batzorde Iraunkorraren laguntzaz.

helburuak

Orokorrak:

- Lan-taldearen kohesioa eta koordinazioa bermatu.
- Zubi lana egin Batzorde Teknikoaren eta Batzorde Iraunkorraren artean.

ekintzak eta epeak

Ekintzak (urte osoan zehar)

- Lan Talde Teknikoaren bilerak
- Batzorde Iraunkorrek bilerak
- Aukeraketa prozesua
- Egunerokotasuna

Kronograma (hilero)

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
	■		■	■	■	■		■	■	■	■
		■		■		■			■		■
			■	■							
			■	■	■	■	■	■	■	■	■

hartzaileak

- Batzorde Teknikoko kideak.
- Batzorde Iraunkorra.



ebaluaketa irizpideak

- Bileren maiztasuna.
- Bileren eraginkortasuna.
- Erabakien gauzatzea.
- Teknikarien arteko koordinazioa.
- Batzorde Teknikoaren eta Batzorde Iraunkorraren arteko informazio trukaketa.

6.3 BATZORDE EKONOMIKOA

deskribapena

Batzorde Ekonomikoak EGKren aurrekontua, gastuak eta diru-sarrerak kontrolatu eta kudeatzen ditu. Batzorde Ekonomikoa EGKko idazkariak (administrari-lana burutzen baitu), diruzainak eta presidenteak osatzen dute. Hitzarmenen bidez lortutako diru-laguntzak, elkarteen kuotak eta bestelako diru-sarrerak kudeatzen dituzte eta unean-uneko gastuak eta egoera ekonomikoa zaintzen dituzte.

Batzorde honetan 2013ko aurrekontuaren kudeaketa egingo da, eta Batzorde Iraunkorreko kideekin adostuta, administrazioarekin hitzarmenak negoziatuko dira. Honetaz gain, beharrezkoak izango diren gastuak baloratu eta onartuko dira.

Gainera, hurrengo urteari begirako hitzarmenak prestatuko dira eta aurrekontuaren aurrikuspena egingo da.

helburuak

Orokorrak:

- EGKren alor ekonomikoaren jarraipena egin.
- Alor honetan unean-uneko erabakiak hartu.

Zehatzak:

- 2013ko aurrekontua prestatu.
- Administrazioarekin hitzarmenak negoziatu.
- 2014ko aurrekontua aurrikusi.

**ekintzak eta epeak****Ekintzak (urte osoan zehar)**

- Batzorde Ekonomikoaren bilerak
- Aldundiekin bilerak
- Jaurlaritzarekin bilerak

Kronograma (hilero)

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

hartzaileak

- Aldundiak.
- Jaurlaritza.
- Batzorde Iraunkorra.
- Batzorde Teknikoa.

ebaluaketa irizpideak

- Egoera ekonomikoa.
- Diru-sarrera eta gastuen arteko oreka.
- Hurrengo urterako aurrikuspena.



6.4 OHIKO ASANBLADA

deskribapena

EGKren Ohiko Asanblada urtero ospatzen da. Bertan EGKko kide diren elkarteei aurreko urteko memoria aurkezten zaie eta urte horretarako plangintza, onartu edota atzera bota daitezten. Gainera, kide berrien sarrera bozkatzen da eta EGKri dagozkion erabaki garrantzitsuenak adosten dira.

Bi urtetan behin Batzorde Iraunkorraren eraketa erabakitzen da Ohiko Asanbladan, aurtengo kasua izango da hau.

helburuak

Orokorrak:




- 2012n egindako lana elkarteei aurkeztu.
- 2013rako planifikatutakoa elkarteei aurkeztu.

Zehatzak:








- Asanbladarako beharrezko dokumentazioa prestatu.
- Aldez aurretik elkarteen proposamenak jaso eta aurkeztu.
- Aldez aurretik kidetze eskaerak bildu, baloratu eta aurkeztu.

ekintzak eta epeak

Ekintzak (urte osoan zehar)

-  Memoria eta plangintzaren prestaketa
-  Elkarteen proposamenak jaso eta aurkeztu
-  Kidetze eskaerak jaso eta aurkeztu

Kronograma (hilaro)

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
											
											
											

hartzaileak

- EGKko kide diren elkarteak.
- Batzorde Iraunkorra.

ebaluaketa irizpideak

- Asanbladaren eraginkortasuna.



- Elkarteen iritzia.

6.5 INSTITUZIOEKIKO ELKARLANA: Jaurlaritza

deskribapena

Bere izaera juridikoa, finantziario-bidea eta helburuak direla eta, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak kontaktu zuzena mantentzen du bere egunerokotasunean instituzio publikoekin. Jaurlaritzarekin, alde batetik, EAE mailako elkarlanerako guneak konpartitzen ditu. Eta beste aldetik, EGKren finantziario-bide nagusia den aurrekontu-partida instituzio honen eskutik dator.

Hala, aurtengoan EGKri bideratutako aurrekontua handitzeko lanak egingo dira Jaurlaritzari begira.

Bestalde, EGKren lana balioan jartzeko ahalegina egingo da instituzio honi begira eta mahai interinstituzional bat eratzeko ahalegina egingo da, EGKren etorkizuna planteatu ahal izateko EAEko administrazio desberdinekin batera..

helburuak

Orokorrak:




- EGKren finantziario bidea ziurtatzeko informazio trukaketa eta negoziazioa bermatu.
- Elkarlanerako guneak identifikatu.

Zehatzak:


































- EGKren aurrekontua handitzeko lana egin.
- Mahai interinstituzionala eratzen saiatu.

ekintzak eta epeak

Ekintzak (urte osoan zehar)

-  Aurrekontuaren inguruko lanketa
-  EGKren lana balioan jartzea
-  Mahai interinstituzionala.

Kronograma (hilero)

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
											
											
											

**hartzaileak**

- Jaurlaritza.
- EGK.

ebaluaketa irizpideak

- Bileren maiztasuna.
- Bileren eraginkortasuna.
- Aurrekontuan eragina.
- Lankidetzaren gune berrien sorrera.

6.6 INSTITUZIOEKIKO ELKARLANA: Aldundiak**deskribapena**

Bere izaera juridikoa, finantziario-bidea eta helburuak direla eta, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak kontaktu zuzena mantentzen du bere egunerokotasunean instituzio publikoekin. Aldundiekin lurralde bakoitzeko elkartegintzaren errealitatearen lanketa egiteaz gain, bakoitzarekin lan-hitzarmenak sinatzen dira.



helburuak**Orokorrak:**

- Elkarlanerako guneak identifikatu (Gaztematika, GazteBizz, elkartegintzaren errealitatea...).
- Hitzarmenak adostu.

Zehatzak:

- Hitzarmenetako aurrekontuak handitzeko lana egin.
- Lehen aipatutako mahai interinstituzionala sortzen saiatu.

ekintzak eta epeak**Ekintzak (urte osoan zehar)**

-  Aurrekontuaren inguruko lanketa
-  Elkarlanerako guneen identifikazioa

Kronograma (hilero)

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

hartzaileak



- Foru Aldundiak
- EGK.

ebaluaketa irizpideak

- Bileren maiztasuna.
- Bileren eraginkortasuna.
- Aurrekontuan eragina.
- Lankidetzaren gune berrien sorrera.
- Lankidetzaren eraginkortasuna.

6.7 INSTITUZIOEKIKO ELKARLANA: Legebiltzarra

deskribapena

Bere jardueren eta asmoen berri emateko, eta jasotako dirulaguntzak justifikatzeko, EGKk agerraldiak egiten ditu Legebiltzarrean, dagokion Batzordearekin bilduz. Urtean behin gutxienez ohiko agerraldia egiten du ordurarte egindako lana plazaratu eta hortik aurrerako asmoak azaltzeko.

Bestalde, legebiltzarkideek EGKren agerraldiak eskatuz gero gai zehatzen inguruan erantzuna emateko, bertaratu eta hala egingo da.

helburuak

Orokorrak:



- Legebiltzarkideei EGKren jardueraren berri eman.

Zehatzak:
















- Ohiko agerraldian memoria eta plangintza aurkeztu.
- Legebiltzarkideen agerpen-eskaera eta galderei erantzuna eman.

ekintzak eta epeak

Ekintzak (urte osoan zehar)

-  Ohiko agerraldia
-  Agerraldi eskaerei erantzuna eman

Kronograma (hilero)

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
											
											

**hartzaileak**

- Legebiltzarra.

ebaluaketa irizpideak

- Agerraldien maiztasuna.
- Agerraldien kalitatea eta eragina.

6.8 ERAKUNDE GARAPENA**deskribapena**

EGKren barne egituraren, izaera juridikoaren eta legearen inguruko hausnarketa prozesua abiatuko da, Kontseilua eguneratu, hobetu eta lan-dinamika eraginkorragoa sortzeko asmotan, egoera legal eta juridikoaren gaineko erabaki bat hartzeko asmoaz gain.

Honetarako INDARTZEN programaren ondorio txostena aurkeztuko da asanbladan, eta bertan hau onartuz gero, ildo estrategikoetan lanean hasiko da EGK.

helburuak**Orokorrak:**

- EGKren funtzionamenduaren eta egoeraren inguruko INDARTZEN prozesuko ondorioak onartu eta martxan jarri.

Zehatzak:

- Hemendik aurrerako Kontseilu eredia lortzen bidean lan egin.
- Kontseiluaren papera zehaztu.
- EGKren gaur egungo gabezia eta akatsak konpondu.

ekintzak eta epeak**Ekintzak (urte osoan zehar)**

EGKren birdefinizioan parte hartu eta koordinatu

Kronograma (hilaro)

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

hartzaileak

- EGKko Batzorde Iraunkorra.
- EGKko Batzorde Teknikoa.
- EGKko elkarteak.
- EGKtik kanpoko gazte eragileak
- Erakunde publikoak

**ebaluaketa irizpideak**

- Kontseiluaren akats eta gabeziei aurre egitea.
- Etorkizuneko Kontseilu ereduaren finkatzea.

6.9 IRUDI PUBLIKOA**deskribapena**

EGKk izaera publikoa eta ordezkari-izaera ditu eta lantzen dituen gaiak gaurkotasunekoak eta zenbait sektoreren interesekoak dira. Hau dela eta, Kontseiluak hainbat agerraldi publiko egiten ditu, batzuk EGKk berak deituta, beste batzuk medioek edo bestelako eragileek deituta.

Hala, 2013an zehar ere komunikabideetan, elkarrizketa eta prentsaurrekoetan, aurkezpenetan eta hitzaldietan parte hartuko da, EGKren hitza eta iritzia gizarteari helarazteko.

helburuak**Orokorrak:**

- EGK publikoki ordezkatu.
- EGKren hitza eta iritzia gizarteari helarazi.

Zehatzak:

- Elkarrizketetan eta aurkezpen publikoetan EGK ordezkatu.
- EGKren publikazioetarako zein komunikabide idatzietarako iritzi-artikuluak, prentsa oharrak eta editorialak idatzi.

ekintzak eta epeak**Ekintzak (urte osoan zehar)**

EGKren ordezkaritza publikoa eta iritziaren plazaratzea.

Kronograma (hilero)

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

hartzaileak

- Komunikabideak
- Gizartea.

ebaluaketa irizpideak

- Agerpenen maiztasuna eta agerpenen eragina.
- Komunikabideen erantzuna.
- Zabalketa maila.



7. AURREKONTUA

7.1 EGKko 2013rako AURREKONTUAREN INGURUKO AZALPENAK

Hasteko, aipatu beharra dago bere onesperako jarraian aurkezten dugun aurrekontua 2013rako plangintzan oinarrituta dagoela.

DIRUSARRERAK:

- EUSKO JAURLARITZA:

Sarrerei dagokionean aipatu, momentuz Eusko Jaurlaritzako aurrekontuak onartu ez direnez behin betikoa ez izan arren, **Eusko Jaurlaritzako Gazteria Sailak dirulaguntza nominatiboari** dagokion kopurua 173.500,00 €tan mantentzea eurreikusten da eta ekipamentuei zuzendutakoa, **inbertsioei** dagokiona, 6.000 €tan.

- ALDUNDIAK:

Gaur egun, **Bizkaiko Foru Aldundiarekin** 2012-2015 urteetako hitzarmen bat sinatuta daukagu. Honen zenbatekoa 42.000 € izango da.

Bestealdetik, **Gipuzkoako Foru Aldundiarekin** urte honetarako hitzarmen bat sinatzeko gaude, Aurreikusita 25.553,00 € izango dira.

Halaber, **Arabako Foru Gazteriarekin** harremanetan gaude lurralde honetan egiteko ekintza zehatzak ordaintzeko.

Bere finantziatorako Juventud en Acción programari CAMPAMENTO EN EL PARLAMENTO proiektua aurkeztu diogu. (EGKk "Youth In Action" programako Diru Laguntzen 5.1. ildora eskatu duen egitasmoa da. Bere helburua, Astialdi Hezitzaileak gizarte politika publikoetako diseinu eta inplementazioan eragile aktibo gisa aldarrikatzeko espazio bat sortzea da). Momentuz erantzunik ez daukagunez, zuhurtasunagatik ez dugu aurrekontuan sartu.

- BEREZKO DIRUSARRERAK:

Kontseilukide diren elkarten kuotei dagokion diru partidaren inguruan, aipatu beharra dago aurreikusitako kopurua gutxi gora beherakoa dela, ez baitago jakiterik zenbat elkartek ordainduko duten eta zenbatek ez.

Finantzaketa interesei dagokion atala, aurreikusitako kopurua gutxi gora beherakoa da, hori dirulaguntza jasotzen den epearen arabera izango delako. Gauzak horrela, gerta liteke momenturen batean EGK diru likidaziorik gabe geratzea.



Ikastaro, foro... bitartez jasotzen diren diru-sarrereri dagokionean, aipatu beharra dago kopuru horiek dieta moduan ordaintzen zaizkiola EGK-ri erakunde ezberdinik antolatutako zenbait Foroetan eta programetan parte hartzeagatik.

GASTUAK:

Izandako murrizketak direla eta, gastu guztiak egokitu behar izan ditugu.

Egiturazko eta kudeaketa gastuei dagokionean, aurreko urtearekin konparatuz honetan murrizketa bat egongo dela aipatu beharra dago.

Langilegoaren gastuei dagozkionean, atal honetan murrizketa handienak egin behar ditugula aipatu behar da. Hori dela eta, hiru lurraldeetako koordinazioak (2 lanaldi) eta kulturartekotasuna eta genero arloko teknikaria (1/2 lanaldia) kendu behar ditugu. EGK-ko batzorde teknikoa horrela izanik: Presidentzia (lanaldi osoa), Administrazioa eta Kudeaketa (lanaldi osoa), Etxebizitza eta Enplegua teknikaria (3/4 lanaldia), Komunikazio Teknikaria (3/4 lanaldia), Hezkuntza Teknikaria (3/4 lanaldia) eta Partaidetza teknikaria (irailatik aurrera 3/4 lanaldia). Halaber urtarretik martxora arte soldatak %5etan murriztu dira.

Jarduerei eta proiektuei dagozkion diru irteerez, gastu hauek berregituratu eta banandu egin direla 2013rako Lan Plangintza kontuan izanik. Aipatu behar atal honetan moztu izan diren langileen gastuak izan ezik, besteak handitu egin dugula



**7.2 EGKko 2013rako AURREKONTUA****2013rako EGK-ko AURREKONTUA**

SARRERAK		
EUSKO JAURLARITZA		179.500,00 €
Eusko Jaurlaritza. Zuzenekoa	173.500,00 €	
Eusko Jaurlaritza. Zuzenekoa. Inbertsioak	6.000,00 €	
ALDUNDIAK		67.553,00 €
Bizkaiko Foru Aldundia. Gazteria	42.000,00 €	
Gipuzkoako Foru Aldundia. Gazteria	25.553,00 €	
Arabako Foru Aldundia. Gazteria	- €	
BEREZKO DIRUSARRERAK		9.500,00 €
Finantziar Ondasunak	500,00 €	
Foroetan, Kurtsoetan partehartzeagatik dirusarrerak	1.000,00 €	
2013 urteko kontseilukideen kuotak	5.000,00 €	
Eusko Jaurlaritza (Gazte Txartelako publizitatea)	3.000,00 €	
GUZTIRA		256.553,00 €

GASTUAK	
1.- OROKORRAK	118.046,78 €
1.1.LANGILE OROKORRAK	88.371,78 €
Koordinazio Nagusia (Presidentzia) (3/4 enero-marz/abril-dic con 27.755,83 € Soldata gordina 8.403,46 € EGK- ordaindutako Gizarte Segurantzza	36.159,29 €
Administrarritza (lanaldi osoa) 33.243,31 € Soldata gordina 10.271,97 € EGK- ordaindutako Gizarte Segurantzza	43.515,07 €
Garbiketa Zerbitzua	8.697,42 €
Bizkaia 3.494,43 € Soldata gordina 1.178,55 € EGK- ordaindutako Gizarte Segurantzza	4.672,98 €
Gipuzkoa	2.799,72 €
Araba	1.224,72 €
1.2. EGITURA ETA KUDEAKETA	29.675,00 €
Kopiagintzak	1.000,00 €
Bidalketak	100,00 €
Bulego materiala eta informatika	400,00 €
Teléfonoa, faxa eta interneta	5.000,00 €
konponketak eta mantenua	4.500,00 €
Horniketak	5.000,00 €
Gestorritza	2.600,00 €
Bestelakorik	200,00 €
Langileen osasunaren zainketa	1.000,00 €
Inbertsioak	6.000,00 €
Batzorde Iraunkorra	1.800,00 €
Batzorde Teknikoa eta barruko koordinazioa	1.350,00 €
Harpidetzak	125,00 €
Entitate batzuetan parte hartzeko kuotak	350,00 €
EGK-ko batzarra	250,00 €
Langileen formakuntza	0,00 €



2. LAN ARLOAK ETA PROIEKTUAK	138.506,22 €
2.1 LURRALDEETAKO KOORDINATZIOA	13.556,01 €
Gipuzkoako koordinazioa (3/4 enero-marzo) 5.133,05 € Soldata gordina 1.473,03€ EGK- ordaindutako Gizarte Segurantzza	6.606,08 €
Bizkaiko koordinazioa (3/4 enero-marzo) 5.376,90 € Sueldo bruto 1.473,03 € EGK- ordaindutako Gizarte Segurantzza	6.849,93 €
Proiektuak	100,00 €
2.2. KOMUNIKAZIOA	41.710,86 €
Komunikazio teknikaria (3/4 ene-marz / abril-diciem + 5%) 19.392,18 € Soldata gordina 6.418,68 € EGK- ordaindutako Gizarte Segurantzza	25.810,86 €
Proiektuak	15.900,00 €
2.3. JUSTIZIA ETA BERDINTASUN BALDINTZAK	5.083,44 €
Justizia eta Berdintasunerako teknikaria (1/2 jornada hasta 3.952,31 € Soldata gordina 1.031,13€ EGK- ordaindutako Gizarte Segurantzza	4.983,44 €
Proiektuak	100,00 €
2.4. ENPLEGUA ETA ETXEBIZITZA	28.681,65 €
Enplegua eta Etxebizitza teknikaria (3/4 ene-marz / abril-di 18.468,58 € Soldata gordina 6.113,07 € EGK- ordaindutako Gizarte Segurantzza	24.581,65 €
Proyectos	4.100,00 €
2.5. HEZKUNTZA	29.066,65 €
Hezkuntza teknikaria (3/4 ene-marz / abril-diciem + 5%) 18.468,58 € Soldata gordina 6.113,07 € EGK- ordaindutako Gizarte Segurantzza	24.581,65 €
Proyectos	4.485,00 €
2.6 PARTAIDETZA	9.292,59 €
Partaidetza teknikaria (desde sept 3/4) 6.230,35 € Soldata gordina 2.062,24 € EGK- ordaindutako Gizarte Segurantzza	8.292,59 €
Proiektuak	1.000,00 €
2.7 EGK INDARTZEN	1.000,00 €
EGK Indartzen prozesua	1.000,00 €
2.8 BESTE PROIEKTU BATZUK	10.115,02 €
	10.115,02 €
GUZTIRA	256.553,00 €





Euskadiko Gazteriaren Kontseilua

Consejo de la Juventud de Euskadi



www.egk.org

Autonomia 44 48010 - Bilbao / Tfn: 94 443 61 43 / Fax: 94 444 61 71 / info@egk.org
Anda, 11 Pgal. 20004 - Donostia / Tfn: 943 42 97 07 / Fax: 943 42 98 37 / donost@egk.org
Ramiro de Maeztu, 15 baxo. 01009 - Gasteiz / Tfn: 945 22 06 01 / Fax: 945 22 06 01 / gasteiz@egk.org